


# @ pil-pilean

HUNDERT WASSER



Alokairu sozialeko etxeak

Okupatutako etxeak

Alokairuko etxeak

Babes ofizialeko etxeak

Jabetzan hartutako etxeak

Lokalak

**Etxebizitza arazoa eztabaidagai**

## 1- Etxebizitza

### Salgai:

- Soraluzen, Errabal kalean etxea salgai. Hiru logela, bainugela, jangela, eta sukaldea. Berrituta dago eta bizitzera sartzeko moduan. 80 metro karratu.
- Gabolatz kalean etxea salgai. Bi logela ditu, sukaldea, jangela eta bainu gela. Oso argitsua eta bizitzeko moduan dago. Prezio oso ederra. 70 metro karratu.
- Baltegieta kalean etxea salgai. Hiru logela ditu, jangela, sukaldea eta bainugela. Oso argitsua da eta bizitzera sartzeko moduan. Oso prezio interesgarria du. Deitu lasai eta galdetu.
- Zeleta auzoan etxea salgai. Bi logela, sukaldea eta bainugela ditu etxe honek. Gasdun berogailua de eta etxea berrituta dago. Bizitzera sartzeko prest dago. Eskaintza ona.
- Serafin Atxotegi kalean etxea salgai. Etxe oso polita, hiru logela ditu, bainugela bat, sukaldea eta jangela. Etxe guztia berrituta dago eta altzariekin. Bizitzeko prest.
- Kalonje kaleko 4.ean etxea salgai. Etxe hau hiru logela, jangela, bainugela bat eta sukalde batek osatzen dute. Balkoi eder bat du eta oso argitsua da. Berehala bizitzera sartzeko aukera dago. Interesatuak deitu 649 759078 mugikorrera (Ainhoa).
- Lau eta sei urte bitarteko aurrentzat arropa salgai. Berokiak, galtzak, oinetakoak eta beste hainbeste. Prenda guztiak euro bat eta hiru euro artean. Interesatuak, 649 318 385 telefonora deitu.
- Gipuzkoa Etorbidea 24-5B pisua salgai. Interesatuak 617 347 906 telefonora deitu.
- Etxebizitza salgai Gipuzkoa Etorbidean. Deitu 605 744 466 telefonora (Mariaje).
- Pisu ederra salgai: Ezozibidean, 28zka, 3. eskuma. Bizitzera sartzeko prest, altzairuz betea, berritua, berogailuarekin, kanpora ematen du eta altura bikoitzeko kamarote espaziosua. Telefonoa: 646-52 26 59.

## 2- Lana:

- Larunbat goizetan garbiketa lanak zein pertsona nagusiak zaintzeko prest nago. 666 815 008-679 878 676.
- Modistak era guztietako konponketak egiten ditu Gabolatz kalea, 29, 1 Telefonoa, 666 815 008 / 679 878 676.
- Modistak era guztietako arropak konpondu eta josten ditu, prezio onean. Errabal kalea 6-1 eskuma. Telefonoa: 634 841 172 edo 943 75 17 11.

## 3- Garajeak:

- Garajea errentan. Interesatuak deitu 669 145 893 telefonora.
- Garajeak salgai, Estazio Kaleko 2 eta 3 zenbakietan. 19. 250 eurotan. Interesatuak, 94 480 26 60 telefonora deitu.

## 4- Denetarik:

### Salgai:

- Bizikleta saltzen dut. Duela bost hilabete "Puesta a punto" eginda duena. Prezio oso interesgarria. 943 75 14 91.

### Hartu:

- Ordenagailuko kañoia erosiko nuke. Interesatuak: 628233464
- 6.0, 6.1 luzerako surfeko ohola erosiko nuke. Olatuan maniobrak egiteko moduko ohola eta egoera onean dagoena. Telf: 655721190 eta emaila:tatxus@gmail.com. IKER.
- Hirian ibiltzeko moduko bizikleta merkea erosiko nuke. Ez du inporta zaharra izateak. 100 euro ordainduko nituzke gehienez. Telf:655721190 eta emaila:tatxus@gmail.com IKER.
- Eibarko Tallarra Gaztetxeak sukaldatzeko sua behar du. Etxetik jasotzeko prest gaude. Interesatuak 664 212 382 telefonora deitu.

Atal honetako iragarkiak doan dira.  
Iragarki guztiak, soraluze.iragarkilaburrak.com helbidean daude  
eta baita, www.plaentxia.com helbidean. Kontaktua bertan.

Iragarkiak jartzeko:

943 75 13 04 telefonora deitu edo [www.plaentxia.com](http://www.plaentxia.com)-en  
[soraluze.iragarkilaburrak.com](http://soraluze.iragarkilaburrak.com)



**LOREA DE CASTRO****AINARA OSORO**

## QUO VADIS?

**K**aixo Ainara! Aspaldiko! Ze moduz London inguruan? Islandiako sumendixa dala eta inkomunikatuta egon zariela argi gelditu jaku komunikabidieri esker, hori da hori pelmadia! Baina nik telebista eta egunkarixetan pil-pilean dagan beste kontu baten inguruan idazten dotsut. Azkenengo astietan zortzimilakuen inguruan sekulako polemikia sortu da. Hasteko, goimailako mendizale askok euren burua “Himalayista”tzat dauke, ez dabe beste mendirik igotzen ala? Alde batetik uste dot normala dala planetako 14 gailurrik altuenak igo nahi izatia, norberan buruan mugak zeharkatzeko eta naturak ezarritako zailtasunak gaintzeko. Neri be gustatuko jatan jakitzia zer sentitzen dan han goixan... Baina bestetik, alpinismua ez al da konpetiziño bihurtu? Karrera bat da, oin gainera, telebistaz zuzenian mundu guztira zabaltzen dan lasterketia. Garrantzitsuena lelengua igotzia da! Guzti horrez gain, euren burua arriskuan jartzen daben horrek (Annapurnara juandako %40 ez da bueltatu, ixa txanpona airera botatzia moduan), ez al dira berekoiak? Beren bizitza kolokan jartzen, seme-alabak etxian zain daren bittartian... Nora goiaz? Quo vadis, “Himalayista”?

“

### *Alpinismua ez al da konpetiziño bihurtu?*

Lorea de Castro

### *Harrokerixa puntutxo bat badaguala esango neuke*

Ainara Osoro

”

**D**ana edarto hemen, Lorea. Egunero-egunero Erronka txiki barrixerri aurre egitten. Benetan gustatzen jata bizitzak parian espero ez dittuzun egoerak ekartzen dittuanian, orduan egitten gara haundi. Horregaittik ez dot asko ulertzen jendiak zegaittik sentitzen daben bihar hori halako indar demostrazinuak egitteko. Egixa da danok daukagula autoerrealizaziño biharra, baina uste dot hau urrunegi juatia dala, beste kontu bat da. Gauza bat da norberak bere burua ezagutu nahi izatia, beste bat aldiz, lehia txatxuetan sartzia ia zeinek igoko dittuan hamalau zortzimilak oxigeno barik, bide zailenetik, ekaitz gogorrenen artetik, gomendixo danen aurka eta hankakojoka. Harrokerixa puntutxo bat badaguala esango neuke. Munduko beste puntara jua, hango jendiari lau txakur zikin ordaindu (jakin nahiko neuke eurak barik ze gertatuko ete zan), enpresa erraldoien diruaz, komunikabide guztien ahotan egon... beste gauza garrantzitsuagorik ez balitz moduan! Zeure barne indarra sentitzeko beste mila era okurritzen jataz, Himalayara juateke. Honek ez dittun “Ikusi, mendizaleak”eko mendizaliak, ez Jauna!

Goguan hartzeko

**“... ezin goragoko sentsazioa, heriotzaren mugetarainoko jolasa”**

Iñaki Segurola, filologo eta mendi behezalea



## GUTUNAK

### Udalbiltza

Jaiotza guztietan gertatzen den bezala, Euskalduna jauregian duela hamaika urte ilusioz beteriko 1800 gizon eta emakumek ongi torria eman zioten jaioberriari. Bakarrik ibiltzen ikasi zuenean, gaizkilea zela esan eta, lau urte besterik ez zeukanean, herio zigorra jarri zioten.

Hamaika asmo on zituen haurrak urrats batzuk emanak zituen sententzia jaso aurretik: Bakerako bi-deetan saiakerak eginez, Euskal Herriaren Eskubideen Kartaren proposamena bultzatuz, Eskubideen Aldeko Nazioarteko Konferentzia sustatuz, Euskal Kulturari diharduten eragileekin lankidetzan arituz edo, Euskal Garapen eta Kohesio Fondoaren bitartez, "Zuberoa garatzen" egitasmoa bultzatuz, egitiko ekarpenen zerrendan koka litezke.

Euskal Herria nazioa dela sentitu eta asmo horretan lanean aritu izanagatik, 2003ko apirilaren

29ko goizaldean, Espainiar Entzutegi Nazionalako epaile zen Baltasar Garzonek aginduta, Espainiako Poliziak, egoitzak miatu eta 8 pertsona atxilotu zituen.

Berriz ere umezurtz gelditu ginen. Lehenago beste egitasmoarekin egin zutena berriz egin zuten demokrazia kutsatuaren izenean. Institutio Nazionala izateko jaio zen haurra ilegalizatzeaz gain, lanean aritutako 22 pertsoneri, 10 urtetik 25 urte bitarteko kartzela zigorra eskatzen diete orain.

Euskal Herria nazioa dela aldarrikatzeagatik gaizkileak bagina bezala tratatzen gaituzte. Edozer da delitu, ez bada estatuak esaten duena egiten. Epaitu nahi gaituztenei behin eta berriz errepikatuko diegu: "Nazio bat gara", eta horrela bizi nahi dugu aurrerantzean ere.

**Bittor Trebiño**

### Plaentxi Herri Ikastetxeko arrapala

Udal gobernuak 2010eko aurrekontu proiektua aurkeztu zuenean Sorluzeko EAJ/PNV udal taldeak 8 proposamen aurkeztu zituen aurrekontua osatzeko asmoarekin. Horietako bat P.H.I an sarrerako estaldura luzatzeko 16.000 euroko partida bat zehaztea eta ikastetxeari irisgarritasuna bermatzeko 22.000 euroko partida arrapala bat egiteko.

Lehenengo momentutik adierazi ziguten lehen-tasunak zirela medio estaldura ez zela egingo. Arrapala egiteko 5.450 euroko partida hedagarri bat isladatzen zutela aurrekontuetan. Bere garaian dirulaguntza eskaera egin zuten arrapala egiteko, dirulaguntza eskaera atzera bota zen eta ondoren helegite bat aurkeztu zuten erabakiaren aurka. Orain dela gutxi jakinarazi zi-

guten helegitea ere ez dela onartua izan beraz ez dela dirulaguntzarik egongo arrapala egiteko. Ekainaren 2an izandako Ohiko batzarrean gure taldeak ondorengo galdera luzatu zion Udal gobernuari. Aurrekontuetan arrapala egiteko 5.450 euroko partida hedagarri bat zehaztu zen, zabaldu behar al da partida arrapalak suposatzen duen kostuari aurre egiteko?

Alkateak adierazi zигun urte bukaeran berriz ere dirulaguntza eskaera egingo dutela proiektu hau burutzeko. Ikusi dezakegunez dirulaguntzek baldintzatzen dute arrapala egitea edo ez. Gauza batzuk egiteko dirulaguntzen menpe, beste ekintza batzuk egiteko ordea bilatzen dute dirua. Zain egon beharko dugu beraz urte bukaera arte arrapala egingo den edo ez ikusteko. Informazio gehiago: [www.sorluzepnv.com](http://www.sorluzepnv.com).

**Sorluzeko EAJ/PNV Udal Taldea**

### Esker ona adieraziz

Aukera honen bitartez "Placencia" Kontsumo Kooperatibaren zuzendaritza-batzordeak eta langileok geure eskerrona adierazi nahi diegu Kutzari, Banco Guipuzcoanori,

Pil-Pilean eta udalari, bai eta kooperatibaren mendeurrenaren ospakizun ekitaldietan parte hartu duten guzti-guztiei ere.

**Sorluzeko Kooperatiba Elkartea**

# Pil-Pilean

**Argitaratzailea:** Pil-pilean Kultura Elkartea. Errabal kalea 15- 1., PK 27 - 20590 Sorluz, Gipuzkoa **Telefonoa:** 943 75 13 04 **e-maila:** [aldizkaria@pilpilean.com](mailto:aldizkaria@pilpilean.com) **Erredakzioa:** Leire Iturbe eta Miren Narbaiza **Erredakzio batzordea:** A. Unamuno, E. Unamuno eta A. Madrid, L. Iturbe eta M. Narbaiza **Publizitatea:** Ane Larreategi **Logotipoa:** Pablo Galarraga eta Silvio Vaz **Disenua:** Silvio Vaz **Maketazioa:** Iñigo Uribebebarria **Inprimategia:** Gertu Koop. **Banaketa:** Pil-pilean Ekoizpena, 2.000 ale **I.Z.K.a:** G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil-pilean Kultura Elkarrekin ez du bere gain hartzen aldizkari-ko esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskara bultzatzeko.



**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

**KULTURA SAILA**  
Hizkuntza Politikarako Saiburuordetza



SORLUZKO  
UDALA



GIPUZKOAKO FORU  
ALDUNDIA

## bittartetik



Yoana Azpitarte

## "Berdintasunaren Irudikeria"

Egun, feminismoa eremu akademikoetan, ikerketan eta aldaketa sozialen enuntziatuetan nabari da, baina era apalagoan, iritzi publikoan ere. Itxura denez feminismoa, mugimendu sozial moduan, ez dago oso aktibo.

Oro har, gizarteak, berdintasuna lortu duela uste du eta "berdintasunaren irudikeri" honek herritar gazteengan eragin handia du, arau diskriminatzaile nabariak ezagutu ez dituztelako. Batez ere, "irudikeri" honek, gaur egungo emakumeei libre eta berdintasunean jaio izan direla sinetsarazi die.

Egungo matxismoaren eta sexismoaren forma berriak leunak dira. Emakumeek bizitzen dituzten desberdintasunak, ustekabeko kondizio pertsonalak, trebetasunari edo jasotako eraginari egotzi ohi dira. Ez da hausnartzen, emakume guztiengan sortzen diren desberdintasunak, elkartasunetik eta bide kolektibotik konpondu daitezkeela. Soralezko "Emakumeen Topaguneak" emakumeek jasaten dituzten injustizia egoerak konpartitzeko eta konpontzeko gunea da. "Emakumeen Topagunea" eraikuntza politikoko gune bezala ulertzen dugu, eskaerak eta proposamen zehatzak eszenatoki soziopolitiko batean kokatzen joan daitezen, beti ere, errealitatearen eraldaketa lortzeko helburuarekin. Kontu pertsonalak politikoak dirrelako!

## Rafael Corchero, Bolari Eguneko omendua

Rafael Corchero 67 urteko jubilatu da. Bizi osua emon dau bolo txapelketa artian, jokalaria moduan, baita txapelketa antolatzaile moduan be. Ezozin egindako Bolari Egunion omendu zebeñ.

## Noiztik diharduzu hiru txirlotara jokatzen?

1964tik dihardut eta urte askuan jarraitzia espero dot.

## Zela jokatzen da?

Azalpena emotia jokatzea baino errazagua da. Bolatokixan jokatzen da, noski, lurrez betetako lursail luze eta itxi baten. Bertan pista bat zehaztuta egoten da, bolia bertatik pasatu dein. Pista hau lurretik zentimetro batzuetara dago eta hor dago koskia. 35 zentimetroko pista horretatik bolia txirluetaraino heldu bihar da, jausi barik, eta ahalik eta gehixenak jo. Danera hiru txirlo dare, hortik kirol honen izena.

## Zuk zela ikasi zenduan?

Nik jairik jai lagunekin jokatuz. Lehen normala zan auzuetako jaixetan hiru txirlotara jokatzea. Gaupasak eta dana egin ditugu bolotan! Barixaku iluntzian hasi eta zapatu eguerdiraino...

## Txapelketa eta bolatoki asko gertatu dozuz. Lenena zein?

1970ian hasi nintzan herriko eta inguruetako bolatokixetako koordinatzaile lanak egiten. Lelengo bolatokixa Sagar Errekakua izan zan. Haura bai bolatoki fina! Gero, Erregetxian beste bat egin zan. Bolatoki hartan etarutzen genduan dirua ikastolarako izaten zan. Azke-



nengoz Txurrukako bolatokixan jardun neban.

## Zure bolia botatzeko modua berezix dala dinue. Zegaittik?

Beste jokalaria askok boliari gogor jotzen dotsen moduan, nik suabe-suabe emoten dotsat. Beste batzuetan, eta lagun artian, hankiakin be emon izan dotsat.

## Zer bihar da bolari ona izateko?

Bolotan asko jardutia. Entrenamenduan bittartez teknikia hobetzen da. Eskumuturra be landu bihar da eta ahal dabenak punterixia...

## Eta bolari egunian omendua izateko?

Bolueri eta hiru txirluari urte asko eskaintzia. Nagusixa egin naizen seinale be bada omendua izatia!

## Bada federatutako emakumerik txapelketan?

Bai, gero eta emakume gehixagok hartzen dabe parte. Bazan ordua!

"Jairik jai lagunekin jokatuz ikasi neban hiru txirlotara"



PASCUAL CHURRUGA, s.a.

Hotzian eta beruan  
jotako tornilluak

Errekalde 21  
20590 SORALUZE

T. 943 75 00 06  
T. 943 75 16 00  
F. 943 75 24 61

Javier Alonso Zelaeta  
MEDIKU ESTOMATOLOGOA  
K.Z. 20.000.434  
Jon Azkorbeletia Txurruga  
K.Z. 20.000.752

HORTZ KLINIKA

Errabal 1 - Barrenekoa 2 T. 943 75 16 13



## PSE-EEK baseritarren mugikortasuna hobetzeko proposamena egin du

Maiatzaren 17an Gipuzkoako PSE-EEko batzarkide eta zinegotzi den Soledad Del Bosquek landa eremutik herrirako irisgarritasuna eta mugikortasuna hobetze aldera, baseritarrei taxi-bus zerbitzu berezi bat eskaintzeko proposamena aurkeztu zuen Gipuzkoako Batzar Nagusietan. Mugikortasun eta Lurralde Antolamendurako Batzordean aho batez onartu zute-la azaldu du Solek.

### Proposamena aztertzen

PSE-EEko ordezkariaren arabera, taxi-bus zerbitzu berezi hau 5.000 biztanletik beherako herriei bakarrik eragingo lieken proposamena da, herriko baliabideak sustatzeko asmoarekin. Proposamena onartu ostean, berau gauzatu aurretik, landa eremuaren azterketa zehatza egingo dute Udalekin batera, mugikortasun arazoak dituzten baseritar kopurua zenbatekoa den jakiteko. Datuak lortu ondoren, taxi-bus zerbitzua martxan ipiniko den edo ez erabakiko du Foru Aldundiak.



### Gay harrotasunaren ikurra udaletxean

Ekainaren 28an Gay Harrotasunaren Nazioarteko Eguna ospatzen da. Herriar batek hala eskatuta, ostadar bandera zintzilikatuko da egun horretan udaletxeko balkoian. Eskaera hau urtero onartzea orain bi urteko udalbatzarrean onartu zen. Udalak bat egingo du, beraz, aurten ere aldarrikapen honekin.



### Emekin proiektua emakume langileentzat

Gipuzkoako Foru Aldundiak bultzatuta, Euskadiko Kutxa eta Aspegiren (Gipuzkoako Profesional eta Enpresari Elkartea) laguntzarekin, Emekin proiektua sortuta, emakumeen figura lan munduan bultzatzeko helburuarekin. Emakumea bera protagonista izan dadin bultzada eman nahi dio, zailtasun sozioekonomikoak eta politikoak gaindituz. Horretarako, ekintzaile izan nahi duten emakumeei zuzendutako ikastaro eta diru-laguntzak eskaintzen ditu proiektu honek. Enpresa osatu ostean ere, doaneko jarraipen eta aholkularitza zerbitzua eskaintzen die emakumeei Emekinek.

Informazio gehiago: 943 20 00 41 telefonoan (Somos asesores S.L.) edo [www.emekin.net](http://www.emekin.net) helbidean.

### Zirkua etorri da!

Urte askoren ostean, zirkua izan dugu herrian eta txikienek ederki gozatu dute ikuskizunaz. Frantziako konpainia, "Le cirque d'Alexandre Couget" zirkua familiarra izan arren, denetarik izan zen karpapean: pailazoak, trapezistak, suarekin malabareak, animaliekin espektakuluak...



Iturria Itziar Agirre



**Soraluzeko Kooperatiba Elkarteak**

**100 URTE 1910 - 2010**

943 75 13 45



**SOMOS ASESORES**

Hitzaldi informatiboa doan - Portalea Kultur Etxean (Eibar)  
Ekainak 16 eguaztena, 19:00etan  
Izena emateko: 943 200 041 edo [nagore@somosasesores.com](mailto:nagore@somosasesores.com)

### 50 lagun inguru Emakumeen Topaguneakin

Ekainaren 3an 50 lagun inguru batu ziren Larraitz Lakuesta zinegotziak, Yoana Azpitarte berdintasan teknikariak, Etzoki Larrañagak eta Nerea Orbeak Emakumeen Topaguneari buruz egindako aurkezpenera. Berdintasan teknikariaren arabera, aurkezpenera uste baino jende gehiago hurbildu zen eta horregatik egindako aurkezpenaren inguruan galdetuta, balorazioa positibo dela dio. Aurkezpena egin eta gero, momentuz, kide berri bat izango du Soraluzeako Emakumeen Topaguneak.

#### Topagunean parte hartzeko:

943 75 30 43 deitu edo berdintasan@soraluze.net helbidera idatzi.



### Eibarko epaitegian euskaraz

Eibarko epaitegiko Euskara Taldeak epaitegiko langileek herritarrei harrera euskaraz egiteko kanpaina jarri du martxan, "Justizian ere euskaraz". Euskaraz dakiten langileei gogorarazi nahi diete zein garrantzitsua den harreraren lehen hitza euskaraz egitea.

### Kinto bazkaria ekainaren 12an

1962. urtean jaioetakoek bazkaria egingo dute, zapatuan, Txurruka jatetxean. Bazkaria 14:30ean izango da eta elkarretaratzea eguerdiko 14:00etan Txoko tabernan. Izena emateko, 943 751581 telefonora deitu.

## Abian da Deba ibaia berreskuratzeko programa

Deba eta Ego ibaiak Berreskuratzeko Plan Integrala Debegeesak eta URAk sinatutako hitzarmenaren barruan garatuko da. Plan honek hainbat helburu ditu: flora eta faunako espezie basatiak, espezie inbadi-tzaileak, paisaia eta habitat interesgarriak, sendotasunak eta mehatxuak, desagertzeko zorian dauden espezieak eta bestelakoak identifikatzea eta ezagutzea, horrekin lotutako kultura-, gizarte- eta ekonomia-baliabideak identifikatzea, ezagutzea eta aztertzea eta Deba ibaiarekin lotutako arazo nagusiak detektatzea, esaterako.

#### Udalen parte hartzearekin

Deba Ibaia berreskuratzeko planean eskualdeko udal denek beraien proposamen eta iritziak gehitu dituzte. Soraluzeako ibilguari dagokion saneamendua burututa dago eta goi ibilgutik datorrena burutzen ari da. Al-

katearen esanetan, orain erronka noizean behin dauden isuriak kontrolatzea izango da.

#### Isuriak bata bestearen atzetik

Plana abian bada ere, azken asteetan Deba ibaiak kolore marroixka duela igaro du herria. Azkenekoz joan zen astean.



Ekainaren 3an horrela etorri zen ibaia.

## Elkartasun doinuak herri osoan zehar

Euskal Presoekiko Elkartasun Eguna giro onean joan zen pasa den zapatuan. Adin askotariko jende ugari hartu zuen parte antolatutako ekimenetan. Antolatzailerak pozik agertu dira jasotako emaitzarekin eta herritarrek, zapatu honetan Peio Etxeberrira presoari elkartasuna adierazteko Castelloko espetxera egingo den martxara gonbidatu nahi dituzte.



Kaosarenasoak Elkartasun Eguneko kontzertuan

**GILA TABERNA**  
GOIZEKO 6:30 ETATIK AURRERA ZABALIK  
**GOSARIAK  
ETA PINTXO  
GOXO GOXUAK**  
ERRABAL KALEA 15 T. 943 75 18 34

**Kontulan  
Aholkularitza S.L.**  
Enpresa aholkularitza  
Jabe Elkarteak  
Aseguruak  
Santa Ana, 13 - 1 ezk.  
Tifonora: 943 75 17 82 Faxa: 943 75 01 82  
20590 Soraluze  
GIPUZKOA

# Maisuen Etxeak, etxebizitza ereduaren eztabaidaren erdian

Euskal Herriaren zabalean eta Soraluzeren estuan, etxebizitza arazoa handia da. Espekulazioak, etxe hutsek, alokairu eskasiak eta beste faktore batzuek etxebizitza eskuratzeko zailtasunak eragin dituzte. Norberak bere irtenbidea bilatu du, bizi osorako hipotekatik okupazioaren aldeko aukera egiteraino. Arazo horren ispilu bihurtu dira Maisuen Etxeak, non espekulazioaren kontrako eredu bik topo egin duten. Etxebizitza arazoaren eztabaida piztu da. Zein aukera da zilegi?

2009ko abenduan Udal Gobernuak estatuko etxe hutsak eraberritzeko proiektuen dirulaguntzak aprobetxatuz Maisuen Etxeetan etxebizitza sozialak egiteko proposamena egin zuen. Gobernu Batzordean onartu eta gero, aurrera doa eraberritzeko plana eta datorren ekainaren 14an behin-betiko onartu daiteke.

Sei etxebizitzaren eraberritze lanak esleituta daude 175.840 eurotan, baita kudeaketa proposamena aurkeztuta ere Hirigintza Batzordean; zozketarik egin nahi ez denez, baremazio sistema erabili nahi da. Guraso bakarrak lehenetsi, diru-sarreraren arabera errenta ordaindu eta Soraluzen bizitzen daramaten denbora izango dira ezaugarrietako batzuk.

## Okupak eta elkarteak etxeetan

Eraikinak 9 etxebizitza ditu eta horietako seitan daude aurreikusita etxebizitza sozialak. Gainon-

tzeko hiru etxebizitzetatik bi truke bidezko jabetzan emanda daude, bestea berriz giza larrialdietara bideratuta dago. Etxebizitza guztiak ez daude hutsik, ordea. Eraberrituko dituztenetatik bitan okupak bizi dira duela lau urtetik eta larrialdietakoan errumaniarrak duela hilabete batzuetatik. Horrez gain, beste bi etxebizitzetan danborrada eta abesbatzako lokalak daude.

## 300 etxe huts

2002an “Kalekantalian” Soraluzeko etxebizitzaren inguruko plataformak etxe hutsen azterketa egin zuen eta herrian 300 etxe hutsik zeudela jakin zuten. Udalak ez du orain artean horrelako azterketarik egin baina datozen hilabeteetan du horretarako asmoa. Elkartzen, Eskubide Sozialen aldeko mugimendua, Maisuen Etxeak eraikin publikoa izanda, alokairu sozialera bideratzearen alde agertu da.

## Maisuen Etxeen erabilera

**1958:** Udalak Elizari lurzorua erosi zion 160 pta/m<sup>2</sup> ko prezioan.

**1963:** Estatuak irakasleentzako izango ziren etxeak erakitzen amaitu eta irakasleen familiak bizitzera sartu ziren.

**1987:** AEK sartu zen.

**1992:** Udalak Errusiako umeei bertan bizitzeko aukera eman zien.

**1995:** Pil-pilean Euskara Elkarte eta Eguzki Ekologista Taldea sartu ziren.

**1996-1997:** Euskal Herrian Euskaraz sartu zen.

**1999:** Musika Eskola sartu zen.

**2000:** Azken maisuak alde egin zuen eta bertso eskola sartu zen.

**2001:** Truke bidezko lehenengo etxebizitza sortu zen.

**2002:** Truke bidezko bigarren etxebizitza sortu zen. Abesbatza ere urte horretan sartu zen.

**2005:** Danborradako materialarentzat etxe bat hartu zuten.

**2006:** Lehenengo etxebizitza okupatu zuten.

**2007:** Bigarren eta hirugarren etxebizitza okupatu zituzten.



**1- Udalak Maisuen Etxeetarako birmoldaketa lanak esleitu ditu eta alokairu sozialera bideratzea erabaki. Bertako bizilagun okupatuek beren etxebizitzak ez hustea erabaki dute. Zein irtenbide emango diozue (zeniokete)?**

**2- Herri mailan, ze etxebizitza eredu proposatzen duzue?**

**PSE-EE**

**Sole del Bosque:**  
**“Alokairu sozialaren alde gaude”**

**1-** Gai hau kontu haundiz ikutu behar da. Gu ez gaude ados okupak sartzen lagatzearekin ere. Konponbideren bat egon behar da baina korapilotsua da. Ez dut logikoa ikusten ateari ostikada bat eman eta besterik gabe etxea euren egitea. Egia da beharra badagoela, herriko gazteek arazoa dutela, baina bidea ez da hau, gutxiago herriarenak diren etxeetan.

**2-** Udalak proposatutako moduan, gu ere beti egon gara alokairu sozialdun etxebizitza sozialak egitearen alde. Horretarako alde guztien arteko akordioa behar dugu. Etxebizitzak udalak kudeatuko lituzke berak ezagutzen dituelako ondoen herriaren beharrak.

**PP**

**Maria Garmendia:**

Pil-pilean berarekin kontaktuan ipintzen saiatu den arren, honen erantzunik ez du jaso.

**Maisuen Etxeetako okupak**

**Maisuen etxe okupetako asanblada:**  
**“Gure etxebizitzak ez ditzatela egitasmoan sartu nahi dugu”**

**1-** Hasteko, gure ustez gatazka hau ez zen gertatu behar. Hasieratik esan genien etxeak ez zeudela hutsik eta hainbat laguni bizileku beharra asetzen zigun proiektu bat bazela martxan hor, beraz errespetatu gintzate. Irtenbidea? Beraien egitasmoa aurrera atera dezatela baina gure proiektua onartu eta berau garatzen ari garen bi etxebizitzak ez ditzatela bertan sartu.

**2-** Herri mailan, denok aukeratutako eredu beharko litzateke, oinarri moduan egungo arazoaren muina den jabetza pribatu eta merkantzia ikuspuntuak haustea dituen. Adibidez, etxeak herriarenak izan eta bakoitzari bere beharren arabera eman, eta kudeaketa herritar den artean eramanez inongo instituzio edo bitartekariaren eskuhartzerik gabe. Hortik aurrera okupazioa da gure aukera eta hori gauzatzen eta hedatzen saiatzen gara.

**EAJ**

**Iker Aldazabal:**  
**“Etxebizitza hauek alokairu sozialerako izan behar dira”**

**1-** Oinarri batzuk zehaztu beharko lirateke eta oinarri hauek betetzen dituen edozeinek edukiko luke eskubidea etxebizitza hauek sartzeko.

**2-** Azken hauteskunde programan argi aditzera eman genuen etxebizitza horiek alokairu sozialerako izan behar zirela, horretarako udalak oinarri batzuk zehaztu. Hauen arabera eraman beharko litzateke kudeaketa. Gaur da eguna oraindik ofizialki udal gobernuak ez digula jakinarazi kudeaketa proposamena.

**Udal Gobernu Taldea**

**Jose Luis Arizaga:**  
**“Etxebizitza hutsen azterketa egingo dugu”**

**1-** Soraluzeko udalak, hainbat urtetan hutsik egon diren etxebizitza hauei erabilpen soziala emateko asmoa du. Eraikina publikoa denez, eraberritze lanak amaitu eta gero, herriko gazte guztiei aukera bat eskaini nahi die. Gure aldetik, momentuz, ez dugu beste eszenatokirik planteatzen.

**2-** Udaletik, arlo honetan ditugun eskumen eta ahalmen murrizkak kontuan harturik, etxebizitza eskubide moduan ulertzen dugu. Alokairu politika bultzatuko dugu eta espekulaziotik urrundu. Herrian dauden etxebizitza hutsen azterketa egitea eta hauen erabilera sustatzea da esku artean dugun hurrengo erronka.



# ZER IRIZTEN DOTSAZU?

Ekainian amaitzen da errenta aitortpena egitteko epia. Errentan aitortzen dan diru kopuru bat zerbitzu militarra finantzatzeko erabiltzen da. Beste kopuru bat, Eliziari edo Gobernuz Kanpoko Erakunde jakin batzueri emoteko aukeria eskaintzen da aitortpena egitten dabenan aukerak mugatuz.

## Ze pentsatzen jatzu errenta aitortpeneko diruaren zati bat Eliziari edo erakunde jakin bati bideratzia, bestelako aukerarik emon bare?

**PRUDI HIDALGO**  
Garbitzailia



**ALBERTO CALDERON**  
Estanpatzailia



**IRENE CALLEJA**  
Erizaina



**IGOR GARMENDIA**  
Tornularixa



**N**eri ondo pentsatzen jata. Biharra daukeneri lagundu egin bihar jakue eta oso ondo ikusten dot horrengana bideratzeko aukeria egotia. Gutako bakoitzak pixkat emotia da inportantia.

**N**eri geizki pentsatzen jata hori. Errenta aitortpeneko % 0'7 zeini emon aukeratzen laga biharko leukie. Nik bixeri emoten dotset, geizki ikusten dot baina... Eta aukeran egonda, neretako hartuko neuke!

**A**ukera gehixago ipini biharko litzakez. GKE-ri emotia ondo dago, baina badare bestelako elkarte eta fundazinuak be. Elizia aukera moduan egotia ondo ikusten dot baina ez militarri automatikoki gure dirua emotia.

**B**akoitzak bere aukeria euki biharko leuke eta ez berez datozenak. Ez nekixan zerbitzu militarri be emoten jakonik! Horrekin ez nago bape ados. Beti egon biharko litzake nahi dozunari emoteko aukeria.

**TXOKO  
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!

Kalebarren 22, behea, Soraluze. T. 943 75 17

**MABE**  
ILEAPAINDEGIA



**ESTETIKA  
SOLARIUM**

Errabel kalea 1, behea  
Tel.: 943 75 14 89  
20590 SORALUZE



**Danborradako kartel lehiaketa**

Aurtengo danborradak bere kartela izango du, Danborrada Batzordeak lehiaketa antolatu du eta. Lanak Udaleko Harrera Bulegoan aurkeztu beharko dira uztailaren 8a baino lehen. Saria 150 eurokoa izango da. Oinarriak: [plaentxia.com-en](http://plaentxia.com-en).

**Ekaineko Kultur Agenda**

**Jaietako kartel lehiaketako sari banaketa:** gaur 19:00etan kiroldegian. 18ra arte lanak ikusgai: aste-gunetan 19-20:30 eta zapatuetan 12-13.30.

**Bertso jaialdia:** gaur 22:15ean zinean: Andoni Egaña, Amets Arzallus, Jon Maia eta Maialen Lujanbio. Sarrerak leihatilan 8 eurotan.

**Erromerixa Eguna:** bihar Ezozin. Egitaraua: [P.COM-en](http://P.COM-en)



**XIII. Motorren bilkura:** ekainaren 13an. Bazkarirako izena emateko 9:00etan Bolian.

**Ezozki auzoko jaiak:** ekainaren 13an. Trikitilariak, salda eta txorizoa, ardi txakurren erakusketa, Iparraldeko jokoak eta bazkaria besteak beste.

**Jesus Laskurainen margolanak:** ekainaren 18tik 27ra bitartean "Bergara, Paris, Soralueze, New York" margolanak Oreka Art aretoan. Inaugurazioa, ekainaren 18an 19etan. Orduetgia: Astegunetan 18-20:30, asteburuan 12-14.

**Musika Eskolako kurtso bukaerako kontzertua:** ekainak 18, barixakua, gaueko 22:00etan kiroldegian.

**"Ander" filma:** ekainak 25, barixakua, gaueko 22:15ean zinean, Udaleko Emakume Batzordeak antolatuta.

**"Coral de Bejar" abesbatzaren kontzertua:** ekainaren 26an, barixakua, arratsaldeko 20:00etan zinean.

# San Juan Sutan erreko dira oroitzapen txarrak

Udako solstizioarekin batera argia, udaren gorespina eta garbi izatearen erritoak berpizten dira indar osoz. San Juan Bezperan, ekainaren 23an, herriko kaleetan eta baserrietan suak piztuko dira. Pil-pilean Euskara Elkar-teak Plaza Barrixan piztuko du. Iluntzeko 21:00etan afari merienda egingo da eta ondoren, gaueko 23:00etan, sugarrekin batera sorgin dantza egingo dute herriko sorginek. Edabe magikoa edan ostean, urteko oroitzapen txarrak sutara botatzeko momentua etorriko da eta ondoren, suaren gaintetik salto egiteko aukera. Gazte asanbladak ere sua piztuko du iluntze aldera Uko orubean. Suaz gain jana eta koktelak ere banatuko dituzte, beste hainbat sorpresez gain.

Udako solstizioarekin batera argia, udaren gorespina eta garbi izatearen erritoak berpizten dira indar osoz. San Juan Bezperan, ekainaren 23an, herriko kaleetan eta baserrietan suak piztuko dira. Pil-pilean Euskara Elkar-teak Plaza Barrixan piztuko du. Iluntzeko 21:00etan afari merienda egingo da eta ondoren, gaueko 23:00etan, sugarrekin batera sorgin dantza egingo dute herriko sorginek. Edabe magikoa edan ostean, urteko oroitzapen txarrak sutara botatzeko momentua etorriko da eta ondoren, suaren gaintetik salto egiteko aukera. Gazte asanbladak ere sua piztuko du iluntze aldera Uko orubean. Suaz gain jana eta koktelak ere banatuko dituzte, beste hainbat sorpresez gain.

**Sorgin dantzako ensaioak**

Sorgin dantza ikasi edo entseatu nahi duenak hilaren 16an 19:00etan eta 18an 19:30ean izango du aukera, Goiko Eskolan.



## Udaleku Ibiltarixak uztailaren 19tik 21era

Kukumixo Aisialdi Taldeak herriko eta bailarako inguruak ezagutzeko Udaleku Ibiltarixak antolatu ditu DBHko ikasleentzat. Lehengo egunean, herriko inguruak ezagutu, jolasak egin eta baserrian lo egiteko aukera izango dute.

Biharamunean, Elgoibarko Aubi-xara ibilalditxoa egingo dute, gaua bertan pasatzeko. Azken egunean txango berezia izango dute zain. Prezioa 80 eurokoa da. Informazio gehiago: 943 751304 edo [koordinazioa@pilpilean.com](mailto:koordinazioa@pilpilean.com).

**28 partehartzaile Kaleko Margo Lehiaketan**

Maiatzaren 30ean 18. Kale Margo Lehiaketan 28 lagunek hartu zuten parte, 22 helduk eta 7 haurrek. Helduenean, Jokin Telleriak irabazi zuen. Bigarren, Javier Igoa geratu zen eta hirugarren, Antton Urresti. Haurren kategorian, lehen saria Mikel Reciok eraman zuen, bigarrena Alejandra Jauregik eta hirugarrena Silvia Loscosek.



## Sorako Erregionala 2. mailara jaitsi da

Mailaz mantendu edo maila galtzea, bi aukera zituen Sorako Erregionalak, eta tamalez, ondo jokatu arren, maila galdu zuten Urnietaren aurka. Horrela ba, Urnietak kategoria mantendu egingo du eta Sorak datorren urtean bigarren mailan jokatu beharko du.

### Denboraldi ona egin dute jubenil eta kadeteek

Jubenilek eta kadeteek denboraldi eta txapelketa ona egin dute.

Jubenilek bosgarren postuan amaitu dute denboraldia, 12 punturekin. Kadeteak 3. geratu dira sailkapenean, 13 punturekin.

### Futbolarien afaria ekainaren 12an

Ekainaren 12an futbolari guztiek afaria egingo dute Txurrukan. Ohikoa da afari hau, maila guztietako kirolariak batzen dituena. Gainera, sari banaketa ere egingo dute jokalarien artean eta giro polita izaten da.



Iturria: Luki H.



## Kiroldegiak eskaintza berezia luzatu du udarako

Arane kiroldegiak ikastaro eskaintza berezia egin du uztaileko, umeei zein helduei zuzendutakoa. Ikastaroetan dagoeneko 21

herritarrek eman dute izena. Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko aukera kiroldegiko harreman izango da.

### Pelota txapelketa martxan

Asier eta Iñakiren omenezko pilota txapelketa martxa ona hartu du eta dagoeneko 22 partida jokatu dira. Antolatzaileen esanetan, aurtengo parte hartzea txikiagoa izan da baina hala ere, 32 herritar dihardute astero-astero San Andresen pilota txapelketa jokatzeko. Irudian, parte hartzaileetako batzuk.



## EMAITZAK

### PELOTA

Titin III. – Laskurain	22
Aritz Lasa – Barriola	20

Asier eta Iñakiren omenezko txapelketako emaitzak P.COMen



### FUTBOLA

Sora (Erreg.) – Urnieta	0 - 1
Urnieta – Sora (Erreg.)	1 - 0
Penaltietan Urnieta irabazle	

## AGENDA

### FUTBOLA

#### Kiroldegiko Futbito txapelketa Barixakua 11

Arane – Guri-guri	19:00etan
Hala dok ala? – Eus. Label 20:00etan	

#### Zapatua 12

Artifices – Kastakuak	09:30ean
Frontoi Team – Real Koholikos	10:30ean
Gare izenbarik – Gaztetxe	11:30ean
Korta Team – Joga Bonita	12:30ean

### PELOTA

Ekainaren 11n 19:00etan  
Adarraga pilotalekuan (Logroño)  
Titin III – Pascual  
Gonzalez – Laskurain

### MENDIKO AUTOMOBILISMOA

Ekainaren 26an Urkiolara igoera  
3,2 kilometro  
Irteera: 15:30ean







## ZORION AGURRAK



### Xabier Jauntsarats

12 urte betetzen dituzulako zorionak eta muxu erraldoi bat etxekoen partez!



### Nagore Caballero

Maiatzaren 30ean 3 urte! Zorionak potxola! Egun zoragarria pasatu, maite zaitugun danon partez!



### Enara Garitano

Ekainak 9an urtebete! Muxu handi bat etxekoen partez!



### Koldo eta Ibon

Ekainaren 6an eta ekainaren 10ean urtebete betetzen duzuelako! Zorionak bikote!! Etxekoen partez.



### Idoia Hernandez

9 urte bete duzulako! Berandu baina seguru... Zorionak politta! Muxu asko etxekoen partez!



### Iraia Intxaurbe

Ekainaren 9an urteak betetzen dituzulako. Zorionak Naia, Ione, Miren eta familia guztiaren partez.



### Axier Oñederra

Ekainaren 25ean 4 urte! Muxu handi bat etxekoen eta Maite eta Jonen partez!

## jaiotakoak

LAIA MARTIN CALLEJA  
NAIA RODRIGUEZ ALONSO  
IKER MOYA DE LA FUENTE  
LORENA MUÑOZ RODRIGUEZ DE LA IGLESIA  
NORA VEGA RODRIGUEZ



## hildakoak

AMANCIO TORRIENTES ARNAIZ



## LEHIAKETA

## AURREKO ALEKO ERANTZUNA

- ▶ Zein ageri da argazki honetan?



- ▶ **Saria:** Gogortuz Fisioterapia zentroan masaje bat.

Oharra: Lehiaketako zozketa ostiral eguerdian burutuko da.

- ▶ **Irabazlea:** Iraultza Ostolaza
- ▶ **Eneko Beretxinaga**, da pasa dan aleko argazkixan agertzen zan soraluzetarra.



deitu **943 75 13 04** edo e-mail bat bidali ezazu [aldizkaria@pilpilean.com](mailto:aldizkaria@pilpilean.com)

# ARGAZKI ZAHARRA



Iturria: Ane Orbea

## EUSTASIA, HERRIKO ARRAIN SALTZAILIA

**E**ustasia Gallastegui 1878. urtian jaixo zan. Oso gazte zala arraina saltzen hasi zan herriko kalietan zihar. Mahai txiki bat aldian hartu, karrua eskuan eta han eta hemen arrain freskua saltzen ibiltzen zan bakarrenetakua zan herrixan. Sarri Bittori alabiakin jarduten zeban lanian, laguntzaile hartuta. Argazki hau Osintxun etaratakua da. Jaixak zirala eta, arduradunak Osintxun arraina saltzeko eskaeria egin zotsan Eustasiari eta berak onartu. 1971n hil zan, 73 urte zittuala.

### Argazkixan:

Eustasia Gallastegui † eta bere alaba Bittori Orbea



# Elizpe

## Hortz klinika

Gure zerbitzuak:

- Ortodontzia ikustezina
- Inplanteak

DOHAINEKO BERRIKUSKETAK  
FINANTZAKETA ZURE NEURRIRA  
KONPROMISORIK GABEKO AURREKONTUA

MUTUALIA, PADI (haurren arretarako hortz programa)

Elizburu 3 behea, Soraluze • Tel. 943 75 25 67

## TXURRUKA JATETXEA

[www.txurruka.com](http://www.txurruka.com)

943 75 15 81



HNOS. **BENITO  
ANAIAK**



Etxeko eta Sukaldeko Altzariak  
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

I. eta F. 943 75 20 47

Santa Ana 26, 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)



**MENDIZABAL**  
okindegia

Kalebarren 10  
T. 943 75 20 91

Balategieta 6  
T. 943 75 13 99

SORALUZE



etorri eta gozatu  
giro euskalduna eta sanua

**etxera**

## SAN ANDRES ITURGINTZA

Iturgintza, gasa,  
eta berogailuak  
sukaldeak eta bainuak

Errebal kalea 2 behea

T. 943 75 16 46

Merkatu Plaza  
20590 Soraluze

T. 943 75 24 40



eguneroko  
arraina eta  
konjelatuak

Juan Mari arraindegia



# Krisiaren aurkako 2010 Plana

100 milioi euro

**Enplegua sortzea**

Gipuzkoan badugu Plana:

Lan-munduan sartzen laguntzea zailtasun bereziak dituzten taldeei eta enpresetako gizarte-balioak sustatzea.